



GOBERNU BILERA

**Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak**

CONSEJO DE GOBIERNO

**Dossier de Prensa
Acuerdos destacados**

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoak 8

Vitoria-Gasteiz, 8 de marzo de 2022

Eusko Jaurlaritza

GOBERNU KONTSEILUAREN ADIERAZPENA MARTXOAK 8a DELA ETA

Gaur, martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna, aldarrikapenerako eguna da; izan ere, aurrerapausoak eman diren arren, mundu guztian irauten du gizon eta emakumeen arteko egiturazko berdintasun ezak. Honen adierazpenak dira soldata-arrakala, emakumeek botere-esparruetara eta erabakiguneetara iristeko dituzten zailtasunak, zaintza- eta etxeko lanen banaketa desorekatua edo emakumeen aurkako indarkeria.

Emakumeen eskubideak aldarrikatzen diren egun honetan, Eusko Jaurlaritzak bere konpromiso irmoa adierazi nahi du benetako berdintasuna lortzeko bidean lanean jarraitzeko. Emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzea lehentasuna da Gobernu eta herri honentzat. Horren erakusgarri da berriki onartu den *Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta Emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legea*; izan ere, 2005ean Berdintasunerako Legea onartzeak gure berdintasun-politiketan eragin zuen inflexio-puntuaren ondoren, lege hau eraldaketarako tresna bihurtzea nahi dugu, eta berriz ere izan dadila aurrera egiteko aukera handi bat.

Aurrerantzean tresna eraginkorragoa eta garaietara egokitutakoa izango dugu hainbat alorretan aurrera egiteko: berdintasunaren zeharkakotasunean politika publikoetan, berdintasunerako egituren indartzean, emakumeen ahalduntzean, soldata-berdintasunean, zaintza-lanen banaketan, gizonen inplikazioan, hezkidetzan edo emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzaren alde.

Berdintasunak legeak bezalako tresnak behar ditu, baina, baita gizarte osoaren borondatea eta ekarpena. Horregatik, Eusko Jaurlaritzatik, Emakunderen bitartez, *Berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizarte baten aldeko Herri Ituna* bultzatzen ari gara. Izan ere, berdintasunaren aldeko pausoak bizkortu behar ditugu, eta, horretarako, ezinbestekoa da gizarte osoaren inplikazioa. Badakigu euskal gizartearen berdintasunarekin konprometituta dagoela eta hurrengo belaunaldientzako berdintasunean oinarritutako etorkizun bat nahi duela. Beraz, herritar guztiei dei egiten diegu konpromiso hori publikoki adierazi dezaten egunero, eta batez ere gaur, martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean.

Gobernantza Publiko eta Autogobernua

TRANSEXUALAK GENERO IDENTITATEAGATIK EZ BAZTERTZEARI ETA HAIEN ESKUBIDEAK AITORTZEARI BURUZKO LEGE PROPOSAMENARI ARGI BERDEA EMAN DIO JAURLARITZAK

- **Gobernu Kontseiluak aldeko irizpidea agertu du eta ontzat ematen du familia eremuan, hezkuntzan, administrazioan, lanean, aisialdian edota justizian neurri berriak bultzatzen dituen ekimena**

Transexualak genero identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legea aldatzeko lege proposamena kontuan hartzearen aldeko irizpidea adierazi du gaur Eusko Jaurlaritzak. Araua bat dator gizartean transexualitateari buruz dagoen pertzepzioaren bilakaerarekin. Izan ere, gero eta gehiago onartzen da sexu aniztasunaren beste adierazpen bat bezala.

Gobernu Kontseiluak argi berdea eman dio 2020-2024 gobernu programan ezarritakoa betetzen duen lege-proposamenari. Gainera, ekimenak segida ematen die pertsona transexual eta transgeneroen alde diharduten elkarteekin adostutako akordioei, eta baita adingabe transexualen familiekin lortutako akordioei ere.

EAJ, PSE eta Elkarrekin Podemos-IU legebiltzar taldeek proposatutako ekimen honek transexualen diskriminazioa babesteko eta prebenitzeko ikuspegi eta tratamendu integral batetik heltzen dio gaiari. Horrela, neurri berriak hartzen ditu familian eta baita hezkuntzaren, osasunaren, administrazioaren, lanaren, kulturaren, kirolaren, aisialdiaren, segurtasunaren eta justiziaren arloetan ere.

Proposamenaren arabera, transexualen edo transgeneroen eskubideen arloan lan egiten duten elkarteek parte hartu behar dute legean aurreikusitako aginduak garatze aldera, bai eta adingabe transexualen senideen elkarteek ere.

Proposamen honekin Euskadi Europako gizarte aurreratuenen pare kokatzen da, transexualen errespetuari, babesari eta haien diskriminazioaren aurkako borrokari dagokienez.

Gobernantza Publiko eta Autogobernua

EUSKO JAURLARITZA BALDINTZARIK GABEKO OINARRIZKO ERRENTA BATERAKO LEGEGINTZAKO HERRI EKIMENA KONTUAN HARTZEAREN AURKA AGERTU DA

Baldintzarik gabeko oinarrizko errenta baterako Legegintzako Herri Ekimena ez duela aintzat hartuko adierazi du gaur Eusko Jaurlaritzak, uste baitu Euskadik jadanik baduela arlo honetan emaitza onak ematen ari den eredu arrakastatsua.

Asteroko bileran, Gobernu Kontseiluak lege proposamena ez onartzea erabaki du, Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartua baitu, eta oso lan-fase aurreratuan dago, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren lege proiektu baten ekimena Legebiltzarrera bidaltzeko. Arau horrek indarrean dagoen eredia indartzeko balioko du, eta Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren (IMV) prestazio berriarekin zerikusia duen guztia jasoko du. Izan ere, prestazio horren presentzia ez da kontuan hartzen Legegintzako Herri Ekimenean eta, beraz, zaharkituta geratzen da.

Indarrean dagoen ordenamendu juridikoak bereizi egiten ditu Gizarte Segurantzako sistema babesteko ekintza publikoa (bertan txertatzen da IMV) eta gizarte arretako ekintza publikoa (horretan sartzen da Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta edo RGI). Prestazio bakoitza arau jakin batzuen arabera da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunek sinergiaz eta ahalik eta eraginkortasun handienarekin bideratu beharreko eskakizunei erantzuten die.

Eusko Jaurlaritzak RGIaren unibertsalizazioan sakontzearen aldeko apustua egin du, eredu arrakastatsua baita Euskadin. Horrekin, gaur egun behar bezala babestuta ez dauden populazio segmentuetara iritsi nahi du, seme-alabak dituzten familia behartsuetan bereziki eraginez.

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

UKRAINIA-ERRUSIA GERRAREN ERAGIN EKONOMIKOA

Neurri berriak

Europak eta Amerikako Estatu Batuek **Bielorrusiaren aurkako zigorrak indartu** dituzte inbasioan izan zuten rolagatik:

- Europar Batasunak zigor berriak adostu ditu, hainbat pertsonaren eta sektore ekonomikoen aurkako neurri murriztaileak barne, eta Bielorrusiako bankuak Swiftetik kanpo uztea aztertzen ari da.
- AEBetako Merkataritza Sailak Bielorrusiari zabaldu egin dizkio Errusiari ezarritako esportazio-kontrolak, Minskek Ukrainaren inbasio errusiarra babesteko duen gaitasuna «nabarmen degradatzeko».
- AEBk iragarri ditu, halaber, teknologia-esportazioetarako murrizketa berriak, Errusiak petrolioa fintzeko duen gaitasuna babes dezaketena, bai eta bere defentsa-sektorearekin zerikusia duten 22 erakunderi ezarritako zigorrak ere.
- **Munduko Bankuak eta Nazioarteko Diru Funtsak** iragarri dute Errusian eta Bielorrusian dituzten programa guztiak bertan behera utziko dituztela, berehalako ondorioekin, eta 3.000 milioi dolarreko larrialdiko laguntza-pakete bat prestatuko dute Ukrainarentzat.

Eragina Euskadin

- **Euskadik gerra-eremura (Errusia eta Ukraina) egindako esportazioak 292 milioi eurokoak izan ziren 2021ean, eta inportazioak 1.540 milioi eurokoak.** Beraz, Euskadi gerran dagoen eremuko ondasunen inportatzailea da. Bi herrialdeekiko merkataritza arriskuan dago.
- Gerrako eremua, inguruko beste hamabi herrialdek osatzen duten **gatazka-eremu batera zabalduz** (prentsan agertu direnak edo kokapen geografikoagatik erasoaren balizko hedapen baten parte izan daitezkeenak), gatazkaren eragina jasango luketen **euskal esportazioak 2.300 milioira igoko lirateke, eta inportazioak 3.000 milioira.**
- **Susperraldi ekonomikorako oztopoa, Euskadiko Barne Produktu Gordinari (BPG) dagokionez.** Estatu mailan, 2022rako Espainiako hazkunde-aurreikuspenean beherapenak, ehuneko 0,7 eta 1,2 puntu artean.
- **Euskal enpresen ekoizpen-kostuak nabarmen igo** dira (argindarraren faktura altuena, gasolinagatik garraio-kostu gehiago, lehengaiak)

- **Petrolioaren eta gas naturalaren prezioa asko garestitu** da, eta horrek, Euskadiren mendekotasun energetikoarekin batera, produktuen prezioa garestitzea ekarriko du, hau da, **inflazioa handitzea**.
- **Finantza-arriskuak** handitzea, dolarrak euroaren aurrean izan dezakeen balioa handitzea eta banku zentralentzako egoera zaila moneta-politikari dagokionez
- **Gure enpresek bi herrialdeetan izan ditzaketan arazoak, bereziki garrantzitsuak Errusian zehapenengatik eta arrisku komertzialengatik (Rubloren devaluazioa, inflazioa...)**. Gaur egun, gure informazioaren arabera, 32 euskal enpresak **Errusian ezarpenak dituzte, 36 ezarpenekin, horietatik 13 produktiboak dira eta 23 komertzialak**. Aitzitik, **Ukrainan hiru merkataritza-bulego baino ez daude**, eta, beraz, arriskua mugatua da. Hamabi herrialdeetan, non liskarrak eragin zuzena izan dezakeen (Hungaria, Polonia, Finlandia, Suedia, Moldavia, Estonia, Letonia, Lituania, Txekiar Errepublika, Eslovakia, Errumania eta Bielorrusia), Errusia eta Katalunia barne, 119 euskal enpresa daude 235 ezarpenekin, horietatik 117 komertzialak eta 118 produktiboak.
- Errusiak **"etsaitasunezko herrialde"** batzuk definitu ditu, eta horien artean dago Espainiako estatua. Errusiako enpresek herritarrekin egiten dituzten transakzio eta eragiketa guztiak eta "herrialde etsai" horien sinadurak hemendik aurrera onartu beharko ditu Errusiako atzerriko inbertsioa kontrolatzeko gobernu-batzordeak.
- Errusiako gobernuak baimena emango die Errusiako enpresei atzerriko enpresekin dituzten zorrak errubloetan ordaintzeko, Errusiako Banku Zentralaren kanbio-tasa ofizialaren arabera, ordaintzaren egunean, hilean 10 milioi errublo baino gehiago ordaintzeko (66.266 euro inguru).

Eragin ekonomikoa

- **Energia eta lehengaiak**
 - Iparraldeko itsasoko **Brent** petrolio upelaren prezioa 140 dolar inguruan ibili zen igande gauean, 2008ko uztailean erregistratutako 147,5 dolarreko errekor historikotik gertu, Estatu Batuek Errusiako petrolio gordinaren salmentari murrizketak ezar diezazkioketen beldur (+%87 inguru, aurreko urteko data berarekin alderatuta). Txostena egiterakoan 127,49 dolarretan kotizatzen du.
 - Europako **gas naturalaren prezioak**, apirilean hornidurarekin, Herbehereetako TTF merkatuan 300 €/ MWh-ko zifra gainditu zuen txostena egin zenean, eta errekor historiko berria ezarri zuen.
 - **Argindarraren** prezioak errekor historikoa markatu zuen atzo 22/03/07an 545 euro/MWh-ko kopuruan, Espainian inoiz ikusi ez den erreferentzia, eta 600 euro/MWh-ko muga gainditzera iritsi zen puntako orduetan.
 - **Aluminioaren** eta kobreaken prezioek markak hausten dituzte berriro. Hiru hilabeteetan entregatzeko aluminio-tona 3.872 dolarrera iritsi da Londresko metalen merkatuan, txostena egin

den unean, eta kobre-tona 5 dolarreko prezio historikora iritsi da librako.

- **Paladioaren** prezioa maximo historikora igo da astelehen honetan 22/03/07an, eta 3.373 dolarrera igo da ontza bakoitzeko txostena egiteko unean, aurretik 3.440,76 dolarreko errekorra jo ondoren.
- **Nikelaren** prezioak ez zuen 2007ko errekorra hautsi, baina nabarmen egin du gora, 29.609 dolarrera iritsiz txostena egiteko unean
- **Gariaren** prezioa asteazkenean igo zen berriro, bezperan 2008tik izandako mailarik altuena jo ondoren

- **Finantza-sektorea**

- Euroguneko **inflazio-tasa** % 5,8ko errekorra igo da otsailean
- **Errubloa** dolarrarekiko % 10 jaitsi zen atzo eta 136 unitateetan dago trukea, saioan 140,25 unitate izatera ere iritsi zen, minimo historiko berria, beraz.
- Merkatuei dagokienez, **kapitalizazioaren arabera hamar konpainia errusiar handienek** batez beste % 96ko galera izan dute bost saiotan. Horietako batzuk 2021ean izandako onura historikoetatik datoz.

Eragina sektoreka

Multinazional handiek iragartzen jarraitzen dute, bai Errusiatik irtengo direla, bai tokiko enpresetan dituzten partaidetzak salduko dituztela, edo enpresa batzuek ia hiru hamarkadetan zehar inbertitu dituzte aktiboak bertan behera utziko dituztela. Mugimenduak **autoen fabrikatzaileei, petrolio- eta energia-ekoizleei eta logistika-industriari eragiten die bereziki.**

Euskadin, sektoreka:

- **Kezka amankomunak**

Industria kezkatuta agertu da orokorrean, Errusiako eta Ukrainako merkatuekin duten merkataritza-harremanaren intentsitatea edozein dela ere:

- Epe labur/ertainerako eragin nagusiak **lehengaien eta energiaren prezioen igoera berri baten** ondorio izango direla kalkulatu da.
- **Banatzaileekiko tentsioak** gehiago zailtzen dira
- Finantza-mailan, merkatuen ziurgabetasunak ere aurreikusten du **finantzaketa garestiagoa** izatea.
- **Kolpea animoari eta konfiantza orokorrari**, ziurgabetasun ekonomikoa eta susperraldi ekonomikoaren atzerapena, oraindik osasun-krisitik atera gabe gaudenean, eta, ondorioz, kontsumoa moteltzea eta inbertsioak gelditzea
- Gerra honek **beste merkatu batzuetara** ekar ditzakeen **ondorioak**, hala nola: Polonia, Txekia, Eslovakia, Estonia

- Zigorrek sektorearen eragiketa globalen oinarri diren **finantza-eskemetan duten eragina**, horniduran ez ezik, inbertsioetan eta abarretan ere.
- Euskal industriari kalte egingo dioten **abalak exekuta litezkelako beldurra**.

- **Kezka espezifikoak**

Kluster gehienek adierazi duten arren beren industrien harreman zuzena erlatiboki txikia dela Errusiarekin edo Ukrainarekin, kezka espezifiko batzuk badaude, sektore batzuetan:

- **Material estrategikoak garestitzea**. Hala nola: aluminioa, paladioa, altzairua, titanioa, zirkoa, edo landare-olioa (ekilorea); eta garia, artoa edo garagarra bezalako zerealak (eraldaketa-prozesuetan zuzenean sartzen dira, eta animalientzako pentsu gisa ere balio dute). Europak dio animalien elikadura bermatzeko lehengaien hornidura arriskua egon daitekeela.
- **Hornidura-kateko desorekak**, produkzio-geldialdiak eta finantza-tentsioek eragindako desdoikuntzak
- **Material osagarrien kostuak**, hala nola plastikozko eta aluminiozko ontzien kostuak, gehikuntza nabarmena izan dezakete.
- **Logistika**: aire-espazioa ixteak kontinenteen arteko hegaldietarako ordu gehiago eskatzen ditu, Ukrainarako itsas trafiko guztia bertan behera geratu da, edukiontzi-ontzi nagusiek Errusiako portuetarako erreserbak bertan behera utzi dituzte, Ukrainan errepideko garraiorako mugak itxita daude, laguntza humanitariorako izan ezik.

Energia-larrialdia

Egiaztatu ahal izan denez, energia-larrialdiko egoeran gaude eta etxeetan, – bereziki, pertsona ahulei– eta enpresa-sare osoari –bereziki, euskal jarduera ekonomikoan garrantzi handia duen industria elektointentsiboari– eragiten die.

Gerrak eragindako energia-larrialdiaren aurrean, eta Euskadik duen energia-mendekotasuna kontuan hartuta, inoiz baino beharrezkoagoa ikusten dugu energia-eraginkortasuneko politikak areagotzea (euskal industriak urteak daramatza politika horietan inbertitzen, zorionez). Premiazkoa da, Euskadin urriak eta beharrezkoak diren energia berriztagarrien azpiegiturak bizkortzea, eta berrikuntza behar dugu energia garbiak lortzeko (hidrogenoa, adibidez); izan ere, eremu horretan, gaur bertan egiaztatu ahal izan dugunez, Euskadik gogor egiten du lan.

Nolanahi ere, energia-larrialdi honek premiazko eta ezohiko konponbideak eskatzen ditu, eta Europar Batasunera begira jartzen gaitu, non atzo merkatu elektrikoaren eredu marjinalista aldatzeko ekimen bat iragarri zen. Ostegun honetan, martxoaren 10ean, Kontseilu Europarrak energiaren kostua gasaren erreferentziazko prezioetik bereizteko aukera aztertzea aurreikusi da.

Erabaki hori premiazkoa dela uste dugu, elektrizitatearen kostuak ez dezan

eragin hain kaltegarria izan ez gizartean, ez eta euskal enpresen lehiakortasunean ere.

Nolanahi ere, bizi dugun energia-larrialdiko egoera horren aurrean, Eusko Jaurlaritzak uste du aparteko neurriak hartu behar direla eta bai Europak, baita Estatuak ere euren baliabideak jarri behar dituztela energia larrialdiak eragin ditzakeen arazoak arintzeko. Euskadin ere, baliabide propioak bideratzeko prest gaude.

Osasun-larrialdiko fasean jardun ahal izan zen bezala, energia-larrialdiak ere jarduera globala eskatzen du, inpaktu-neurri sendo, malgu eta bizkorrekin.

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

250.000 EUROTIK GORA KALITATE- ETA JATORRI-ARAUBIDEAK BABESTEKO

- **Jatorri-deiturak, Adierazpen Geografiko Babestuak eta beste bereizle ofizialetan sartzen diren produktuen sustapena finantzatuko da**
- **Aurreikusitako laguntzak informazio eta sustapen ekintzetarako eta ekoizleek kalitate-araubideetan aurrenekoz parte har dezaten izango dira**

Eusko Jaurlaritzak Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuaren agindua onetsi du. Agindu horren bidez, nekazaritza-produktuen eta elikagaien kalitate-araubideetarako laguntzetarako deialdia egin da 2022 ekitaldirako, 250.000 euro baino gehiagoz hornituta. Helburua da ekoizleek kalitate-araubideetan (Jatorri-deiturak, Adierazpen Geografiko Babestuak eta kalitate-bereizleak) aurrenekoz parte har dezaten erraztea, eta horiei buruzko informazio eta sustapen jarduerak babestea.

Bi eratako laguntzak aurreikusi dira:

- **Ekoizle-taldeek merkatu erkideari begira, kalitate-araubidearen babespean dauden produktuei buruzko **informazio eta sustapen jarduerentzako laguntza**.** Dirulaguntza jaso dezaketen jarduera-kosteen ehuneko bati laguntza zuzena emango zaio.
- **Ekoizleek kalitate-araubideetan aurrenekoz parte hartzeko laguntza.** Ustiategiko emango den urteko hobaria izango da. Eskatzaileari kalitate-araubideetan parte hartzeak sor diezazkiokeen kostu finkoen arabera erabakiko da zenbatekoa, onuradunak izena eman eta gehienez ere bost urtez.

Eskabideak aurkezteko hilabeteko epea egongo da, Aginduak ondorioak dituen egunetik hasita. Ereduak orrialde honetan daude eskuragarri: <http://www.euskadi.eus>, eta Eusko Jaurlaritzaren Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzara bidali beharko dira.

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK 15,8 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU GIPUZKOAN ESKOLA-GARRAIOKO IBILBIDEAK KONTRATATZEKO

- **Gipuzkoan eskola-garraioko 145 ibilbide kontratatzeke lehiaketa publikoa irekiko du Hezkuntza Sailak**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran baimendu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 15.885.361,80 euroko kopurua bideratzea Hezkuntza Sailaren menpeko ikastetxe publikoetako eskola-garraio zerbitzua kontratatzeke, Gipuzkoako Lurralde Historikoan. Zehazki, 145 ibilbide lizitatuko dira lurralde horretan, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH-ko ikasleei zuzenduak.

Ibilbide horietako bakoitzak lote bat osatzen du (kontratu bat). Kontratuek 20 hilabeteko iraupena izango dute, uztaila eta abuztua kontuan hartu gabe, eta luzatzeko aukera izango da.

Ibilbide hauen esleipenerako lehiaketan parte hartu nahi duten garraio enpresek, zerbitzua garatzeko beharrezko den administrazio-baimena izan beharko dute –Bidaiarien Errepideko Garraioari buruzko 4/2004 Legean aurreikusia-. Horrez gain, eskola-garraioko eta adin txikikoen garraiorako segurtasun baldintzei buruz indarrean den araudiak ezartzen dituzten gutxieneko baldintzak ere bete beharko dituzte.

Eskola-garraioko zerbitzu osagarriak hezkuntzarako sarbidearen unibertsaltasuna bermatzen du. Hezkuntza Sailak kudeatzen duen eskola garraioa erabiltzeko eskubidea dute bizilekutik ikastetxera 2 kilometro edo gehiagoko distantzia duten ikasleek, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan. Gutxieneko distantzia hori 4 kilometro edo gehiagokoa izan beharko da DBHko bigarren zikloan eta Oinarrizko Lanbide Heziketan, eta 500 metrokoa besterik ez mugikortasun urriko ikasleen kasuan.

Egun, ikastetxe publikoetan ikasten ari diren ia 8.000 ikasle –aipaturiko baldintzak betetzen dituztenak- garraiatzen dira egunero Gipuzkoan, lurralde honetako 79 ikastetxeri zerbitzua ematen dieten 145 ibilbideetan.

Lizitatu beharreko ibilbide kopuru altua aintzat hartuta, eta enpresa txiki eta ertainei kontrataziorako sarbidea errazteko helburuz, lurralde historiko bakoitzeko kontratazio-espeditente bat lizitatuko da. Araba eta Bizkaiko eskola garraioaren kontratuak datozen asteetako Gobernu Kontseiluetan onartzea aurreikusten du Hezkuntza Sailak.

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK 2022ko DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTU DU

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, Sail honen 2022 urterako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu du. Dokumentu honetan Hezkuntza Sailaren lau Sailburuordetzek eta 12 Zuzendaritzek kudeatzen dituzten dirulaguntza deialdi guztiak jasotzen dira, eta laguntza hauen aplikazioarekin lortu nahi diren helburuak eta eraginak ere zehazten dira.

Izaera programatikoa duen Plan hau Hezkuntza Sailaren politika antolatzeko tresna da, dirulaguntzen bidez, gizartearen intereserako den jarduera bat sustatzea jomuga duten jardun-arloetan. Era honetan, tresna honen bidez Sailaren jardute-eremuan eraginkortasun maila areagotzea lortzeaz gain, gardentasuna sendotzea ere lortzen da.

Orotara, 114 dirulaguntza lerro ditu egun Hezkuntza Sailak, eta horien kopuru osoa 188.229.675 eurokoa da 2022 urterako. 114 deialdi horien artean nabarmentzekoak dira, besteak beste, eskolaratzeko beka eta laguntzak, unibertsitate-bekak, Lanbide Heziketako zein unibertsitateko ikasleen mugikortasuna errazteko laguntzak, ikertzaileen mugikortasunerako deialdiak, irakasleen prestakuntzara bideratuak, ikerketa sustatzeaz arduratzen direnak, Lanbide Heziketako ikastetxeetarako ekipamendua eskuratzea helburu dutenak, Hezkuntza sisteman digitalizazioari bultzada ematem diotenak edo udal titulartasuneko eskoletan instalazioak egokitzeko asmoz deitzen diren dirulaguntzak.

Hezkuntza

LARRAULEN HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO IKASTETXE PUBLIKO BERRIA SORTZEA

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, Larraulen (Gipuzkoa) Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe publikoa sortzen duen Dekretua. Datorren 2022-2023 ikasturterako sortuko da eskola berria, Asteasuko Pello Errota Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxearengandik bananduta.

Larraulen gaur egun ez dago Haur eta Lehen Hezkuntzako berezko irakaskuntza-eskaintzarik, eta, beraz, Asteasuko Pello Errota eskolari atxikitako bi gela desplazatu dituzte herrian. Udalerri bietan dituzte instalazioak eta irakasleak.

Dekretua onarturik, Larraulen eskola berri bat sortuko da, atxikitako ikastetxetik (Pello Errota HLHI) bereizia, udalerriko gizarte eta hezkuntza-errealitateari erantzuna emango diona eta «*eskola txiki*» kontzeptuarekin lan egingo duena. Ikastetxe berriak honako izen hau hartuko du: *CEIP Larraulgo Herri Eskola HLHI*.

Tolosaldean kokaturik, eta errepidez Asteasutik bi kilometro pasatxoko distantziara, Larraulek 261 biztanle ditu gaur egun. 2021-2022 ikasturte honetan Haur eta Lehen Hezkuntzako 17 neska-mutil dituzte Larraulgo gela desplazatueta.

Gaur Gobernu Kontseiluak onartu duen Dekretua 2022ko uztailaren 1ean sartuko da indarrean.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEAK INDEPENDIZATZEN LAGUNDU NAHI DUEN 'ORDAINKETA BAKARREKO' LAGUNTZA 290 EMAKUMERENGANA IRITSI ZEN 2021EAN, INOIZ BAINO GEHIAGO

- **2020an baino 54 onuradun gehiago izan ziren, eta 2008an baino 272 gehiago, laguntza hori lehen aldiz eman zenean**
- **Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak 1,6 milioi bideratuko ditu 2022an, nahiz eta kontu-saila handitu egin daitekeen; beraz, eskaera osoari erantzungo zaio**
- **2022an, berriz ere handitu dira emakumeek jasotzen dituzten zenbatekoak, 2.780 eurotik 11.117 eurora, emakumeen eta haien ardurapeko pertsonen egoeraren arabera**

Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei zuzendutako 'ordainketa bakarreko' laguntza 290 emakumerengana iritsi zen iaz. 2020an baino 54 emakume gehiago dira, eta inoiz izan den zenbakirik altuena. Laguntza ekonomiko honen helburua da erasotzailearengandik independizatzen laguntzea eta bizimodu berri bati ekitea.

Lurraldeen araberako banaketa honakoa da: Bizkaiko 154 emakume, Gipuzkoako 78 eta Arabako 58.

2021ean, 1,3 milioi euroko aurrekontu-partida izan zen, eta 1.750.000 euro arte handitu zen guztizko eskaerari erantzuteko. Horrek %35 gehitzea ekarri zuen, eta prestazio horretarako inoiz bideratutako gehineko zenbatekoa izan zen.

Guztira, 2021ean emakumeen 407 eskaera aurkeztu ziren, eta horiei gehitu behar zaizkie joan den urtean ebatzi ez ziren 66 eskaera. Guztira jasotako 473 eskaeretatik (aurreko urtean baino %18 gehiago), 290 onartu ziren (%19 gehiago), eta 15 atzera bota ziren; 126 ukatu; eta beste 42 ebatzi gabe geratu ziren.

Berriz ere esan behar dugu zenbaki horiek errekorra direla. 2020an mota horretako 236 laguntza banatu ziren. Beraz, 54 emakume gehiago. 'Ordainketa bakarra' 2008an ezarri zen lehen aldiz, eta urte horretan 18 emakume izan ziren onuradunak. 13 urte hauetan hazkundera esponentziala izan da.

1,6 milioi euro bideratuko dira

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailak handitu egin du, aurten ere, hasiera batean eskaera horri erantzuteko zegoen partida. Horrela, 1,6 milioi euro erreserbatu dira. Gogoan izan behar da laguntza hori behar duten eta baldintzak betetzen dituzten emakume guztiek izango dutela laguntza horiek eskuratzeko aukera, horretarako dagoen partida handitu egin baitaiteke. Horrek esan nahi du, agortzen bada, handitu egin daitekeela.

2021ean, guztira, Eusko Jaurlaritzak 1.673.196 euro erabili zituen laguntza horiek ordaintzeko. Aurten, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak 1.600.000 euroko beste partida bat prestatu du, Gobernu Kontseiluak onetsia.

Zenbatekoen gehikuntza

Laguntza honen azken helburua da diru-sarrerarik eza edo horien urritasuna aldi baterako arintzea, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria jasaten duen emakumeari gutxieneko bizi-baliabide batzuk emateko, erasotzailearengandik independizatzeko eta bizimodu berri bat hasteko.

2022 honetarako, kasuistika bakoitzari eman beharreko diru-kopurua handitu da. Zuzeneko laguntzak 2.780 eurokoak dira ezintasunik ez duten eta beren kargura inor ez duten emakumeentzat, eta 11.118 eurokoak, berriz, %65eko edo gehiagoko ezgaitasuna duten emakumeentzat edo %65eko ezgaitasuna edo handiagoa duten senide edo adingabe bat ardurapean duten emakumeentzat.

GENERO INDARKERIAREN BIKTIMENTZAKO LAGUNTZAK	ZENBATEKOAK 2022		
Langabezia-sorospena (Ondorio askotarako errentaren adierazle publikoaren %80)		463,22 €	
	Ardurapeko pertsonarik gabe	Senide bat edo adingabe bat bere ardurapean	2 edo + senidea/ adingabea bere kargura
Ezgaitasunik gabeko emakumea	2.780 €	5.559 €	8.338 €
% 33ko edo hortik gorako ezgaitasuna duen senideren bat edo adin txikikoren bat duen emakumea.	-	8.338 €	11.118 €
% 33ko edo hortik gorako ezgaitasuna duen emakumea	5.559 €	8.338 €	11.118 €
% 33ko edo hortik gorako ezgaitasuna duen emakumea, % 33ko edo hortik gorako ezgaitasuna duen senidea edo adingabea bere kargura duena	-	11.118 €	11.118 €
% 65eko edo gehiagoko ezgaitasuna duen emakumea, edo % 65eko edo gehiagoko ezgaitasuna duen senide bat edo adingabe bat bere kargura duena.	-	11.118 €	11.118 €

Laguntza honen helburua, diru kopuru handi samarra eta aldi bakarrekoa denez, emakumea bizi den tratu txarren egoera horretatik errazago ateratzea da. Laguntza horrekin, biktimak ziur aski izango dituen zorrei aurre egin ahal izango die (gehienetan bikotekidearenak), behar izanez gero etxebizitzaz aldatu ahal izango du, etab.

Ordainketa bakarreko laguntza hau genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat da, hau da, Lege Organikoak ezartzen duen bezala, gizon batek beti bikotekide den edo izan den emakume baten aurka erabilitako indarkeria.

Biktimek zuzenean eska dezakete laguntza hori, profesionalen bitartekaritzarik gabe, Eusko Jaurlaritzaren web orrian formularioa bete ondoren edo Zuzenean Zerbitzuan eskatuta; baita oinarrizko gizarte-zerbitzuetako edo Biktimari Laguntzako Zerbitzuko gizarte-langilearen bidez ere; baita abokatutzako, gizarte-hezkuntzako eta abarreko profesionalen baten bidez ere.

Laguntza telefonoa

Bestalde, gogoratu behar da 900.840.111 Genero-indarkeriaren Biktimentzako Telefono bidezko Arreta Zerbitzua eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan dagoela emakumeen eskura. Arreta – Berehalakoa, anonimoa eta fakturan arrastorik gabea – 51 hizkuntzatan eskaintzen da, eta entzumen-eta/edo hizketa-desgaitasuna duten pertsoneri ere arreta emateko prestatuta dago.

Era berean, indarkeriaren biktima diren emakumeek 112 zenbakia dute larrialdi-egoeran.

Kultura eta Hizkuntza Politika

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAK 280.000 EURO
BIDERATUKO DITU ALDERDI POLITIKOekin LOTURA DUTEN
FUNDAZIOA ETA ELKARTEENTZAKO**

Eusko Jaurlaritzak, gaurko Gobernu Kontseiluan, Eusko Legebiltzarrean ordezkaturik dauden alderdi politikoekin lotura duten fundazio eta elkarteek garatuko dituzten proiektu, programa ikerketa edo jarduerak laguntzeko 280.000 euroko diru partida bat onartu du.

Interesa duten fundazioek eskariarekin batera garatuko dituzten programa edo proiektuen aurrekontua, memoria eta gauzatze egutegia aurkeztu beharko dute eta martxoaren 26tik aurrera hilabeteko epea izango dute.

Kultura eta Hizkuntza Politika sailatik bideratzen diren laguntza hauen helburua pentsamenduaren arlo guztiak, batez ere, politikoa, soziala eta kulturala, aztertzeko, ikertzeko eta garatzeko proiektu, programa edo jarduerak bultzatzea eta sustatzea da.

luzko deialdian honako fundazio hauek jaso zuten dirulaguntza: Fundación Alkartasuna Fundazioa, Fundación para la Europa de los Ciudadanos, Fundación Ramón Rubial Fundazioa, Iratzar Fundazioa eta Sabino Arana Fundazioa.

Gobierno Vasco

**DECLARACIÓN DEL CONSEJO DE GOBIERNO CON MOTIVO
DEL 8 DE MARZO**

Hoy, 8 de Marzo, “Día Internacional de las Mujeres”, es una jornada para la reivindicación porque, a pesar de los avances, persiste en todo el mundo una desigualdad estructural entre hombres y mujeres que tiene diversas manifestaciones como la brecha salarial, la dificultad de acceso de las mujeres a ámbitos de poder y toma decisiones, el desequilibrado reparto de tareas de cuidado y domésticas o la violencia contra las mujeres.

En este día en el que se reclaman los derechos de las mujeres, desde el Gobierno Vasco queremos mostrar nuestro compromiso firme de seguir trabajando para conseguir la igualdad real y efectiva. La igualdad de mujeres y hombres es una prioridad para este Gobierno y para este país. Prueba de ello es la reciente aprobación de la *Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres*; una ley que, tras el punto de inflexión que supuso para nuestras políticas de igualdad la aprobación en 2005 de la Ley para la Igualdad, queremos que se convierta en palanca de transformación y vuelva a situarnos ante una gran oportunidad de avance.

Vamos a contar en adelante con un instrumento más efectivo y adaptado a los tiempos para seguir avanzando en la transversalización de la igualdad en todas las políticas públicas, en el refuerzo de estructuras para la igualdad, en el empoderamiento de las mujeres, en la igualdad salarial, en el reparto de los trabajos de cuidado, en la implicación de los hombres, en la coeducación o en la construcción de una vida libre de violencia contra las mujeres.

La igualdad necesita instrumentos como las leyes, pero necesita, además, la voluntad y la aportación de toda la sociedad. Por eso, desde el Gobierno Vasco, a través de Emakunde, estamos impulsando un *Pacto de País por la Igualdad y a favor de una sociedad libre de violencia contra las mujeres*. Porque necesitamos acelerar el avance de la igualdad y, para ello, es imprescindible la implicación de toda la sociedad, una sociedad vasca que sabemos que está comprometida con la igualdad y que aspira a un futuro igualitario para las próximas generaciones. Animamos, por tanto, a toda la ciudadanía a que exprese este compromiso públicamente todos los días, y especialmente hoy, 8 de marzo, Día Internacional de las Mujeres.

Gobernanza Pública y Autogobierno

LUZ VERDE DEL GOBIERNO VASCO A LA PROPOSICIÓN DE LEY DE NO DISCRIMINACIÓN POR MOTIVOS DE IDENTIDAD DE GÉNERO Y DE RECONOCIMIENTO DE LOS DERECHOS DE LAS PERSONAS TRANSEXUALES

